# 2021eko uztailean erregistratutako langabezia

2021ko uztailean zehar LANBIDEko bulegoetan % 2,58 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 119.202 da, aurreko hilean baino 3.157 gutxiago. 2011atik ez zen horrelako jaitsierarik erregistratzen uztailean; 2015ean eta 2016ean antzeko jaitsierak erregistratu ziren. Uztailean ez dago tendentzia argirik. Trantsizio hilabete bat da eta batzuetan igoerak erregistratzen dira eta besteetan jaitsierak.




| | uzt. 07 | uzt. 08 | uzt. 09 | uzt. 10 | uzt. 11 | uzt. 12 | uzt. 13 | uzt. 14 | uzt. 15 | uzt. 16 | uzt. 17 | uzt. 18 | uzt. 19 | uzt. 20 | uzt. 21 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Series1 | 1,269 | -156 | 606 | -533 | -4,317 | -269 | -2,420 | -371 | -3,082 | -2,961 | -397 | 572 | 1,741 | -1,088 | -3157 |

Aurreko urteko uztailarekin alderatuz, 24.158 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 1.963 langabe gehiago zenbatu dira.

**Langabeziaren urte arteko saldoaren bilakaera**




- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean gehiago murriztu da langabezia (-1.750) emakumezkoen artean baino (-1.407). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-13.342) emakumezkoen arten baino (-10.816); krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate. Gaur egun langabeen % 57,1 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsierak adinarekin proportzioan joan dira; 25 urte azpikoen artean % 6,92 murriztu da eta 54 urte gorakoen artean % 1,08. Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 24 urte baino gutxiago dituztenen artean (% -27,63) eta 25 eta 34 urte bitartekoen artean (% -29,41) .

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Uztailean langabeziak nabarmen behera egin du Industrian (% -3,07) eta Lehen sektorean (% -3,02). Zerbitzuen sektorea izan da kopuru absolutuetan gehien murriztu dena baina balore erlatiboetan gutxien murriztu dena izan da. Oraindik lehen lan esperientzia izan ez dutenen artean, % 4,84 murriztu da. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (% -22,65) eta Zerbitzuetan (% -16,66) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 12,93 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren beherakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

| | |
|---|---|
| o Janari eta edarien zerbitzuak | -693 |
| o Txikizkako merkataritza | -374 |
| o Enpleguarekin erlazionatutako jarduerak | -301 |
| o Egoitzetako laguntza | -195 |
| o Etxebizitzak langile enplegatzaile gisa | -173 |
| o Eraikuntza bereziko jarduerak | -170 |
| o Elikagaien industria | -135 |

Aitzitik, maiatzean erregistratutako langabeziaren junior hazkundea duten jarduerak hauek izan dira:

| | |
|---|---|
| o Hezkuntza | +855 |
| o Administrazioa Publikoa | +67 |
| o Zinema, bideo eta soinu jarduerak | +33 |
| o Elkarte jarduerak | +23 |

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 2.629 pertsonatan murriztu da (-% 3,91) eta epe laburrekoa 528 pertsonatan (-% 0,96). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa bat eman da (-% 28,0) eta epe luzekoen artean, aldiz, -% 4,35 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 64.646 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 54,2a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Uztaileko bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,7 murriztu da, ekainean baino 346 langabe gutxiago, 19.937 langabe guztira; 2021eko uztailean bilakaera okerrena izan duen lurraldea da. Gipuzkoan % 3,16 murriztu da, 1.021 pertsona gutxiago daude langabezian maiatzarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 31.262koa da); bilakaera onena izan duen lurral-

dea da. Azkenik, Bizkaian, ekainean baino 1.790 langabe gutxiago daude (% 2,56ko murrizketa), langabetu kopurua 68.003koa da.

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 20,0ko murrizketarekin; Arabak jarraitzen dio % 17,5eko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 15,1 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 417 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 1,7), Gasteizen 299 pertsonatan murriztu da (-% 1,9) eta Donostian 285 pertsonatan murriztu (-% 3,5). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (-532), Bidasoa Behera (-173) eta Durangaldea (-154) izan dira. Bestalde, Arabako Errioxan (+5) soilik hazi da langabezia.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 19,44), Sestao (% 17,78), Balmaseda (% 16,74), Alonsotegi (% 16,44) eta Amurrio (% 15,55%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko uztailean 40.570 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 927 langabe gehiagok. Langabeen % 34k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.795 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,3 dira horiek. 18.755 langabek (% 15,8), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 34,3), Araban % 31,9koa da eta Bizkaian % 31,7koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 1,64 puntu hazi da; aurreko urtearekin alderatuz 1,79.

Uztailean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua hazi egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da. Ordaindutakoaren araberako prestazio jasotzen duten pertsonen igoera hezkuntzan izandako langabetuen igoerarekin bat dator, profesional hauek prestazioa jasotzeko eskubidea baitute.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,5 (18.428 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 5,1 murriztu da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 2,1. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 22,0 murriztu da, eta bertakoen artean % 15,8.

Langabe atzerritarren % 34,5 Afrika iparraldekoak dira, % 22,7 Latinoamerikatik datoz, % 19,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,0, azkenik, Asiatik. Uztailean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-1.747), eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoak ondoren (-1.211).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 59,5ek (70.935 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 2.777 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan, % 3,8 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 16,7 murriztu da langabezia talde honetan. Gehien murriztu den taldea izan da hileko erlazioan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 2,0 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 18,53. Urteko erlazioan bilakaera onena izan duen taldea izan da.

# 2021eko uztailean erregistratutako langabezia

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.828 dira, hau da, langabeen % 18,3. Talde hau uztailean zehar % 2,8 murriztu da, eta azken urtean % 15,5.

Azkenik, langabeen % 13,2k (15.748 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 3,02 hazi da langabezia azken hilabetean eta % 18,3 murriztu azken urtean. Hileko erlazioan bilakaera okerrena izan duen taldea izan da. Hezkuntza sektore-an izandako igoera da talde honetan azken hilean izan den hazkundearen arrazoia.

- KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 197.841 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 5,47ko murrizketa). Guztira 3.416.498 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 2,58 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 4,39 murriztu da, Errioxan % 0,76, Kantabrian % 3,40 eta Gaztela eta Leonen % 2,05. Katalunian % 8,42 murriztu da eta Madrilen % 1,09.

Langabeziaren beherakada azken urtean nabarmenagoa da EAEn Espainiar Estatuan baino.

## Lan-eskatzaile langabeak 2021eko uztailean

| | Uzt-2021 | Eka-2021 | Saldoa | Bil % |
|---|---|---|---|---|
| **SEXUA:** | | | | |
| GIZONEZKOAK | 51.096 | 52.846 | -1.750 | -3,31 |
| EMAKUMEZKOAK | 68.106 | 69.513 | -1.407 | -2,02 |
| **25 URTEZ AZPIKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 9.237 | 9.924 | -687 | -6,92 |
| GIZONEZKOAK | 4.762 | 5.253 | -491 | -9,35 |
| EMAKUMEZKOAK | 4.475 | 4.671 | 12 | -4,20 |
| **25-44 URTE:** | | | | |
| GUZTIRA | 47.523 | 48.995 | -1.472 | -3,00 |
| GIZONEZKOAK | 19.047 | 19.920 | -873 | -4,38 |
| EMAKUMEZKOAK | 28.476 | 29.075 | -599 | -2,06 |
| **45 URTEZ GORAKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 62.442 | 63.440 | -998 | -1,57 |
| GIZONEZKOAK | 27.287 | 27.673 | -386 | -1,39 |
| EMAKUMEZKOAK | 35.155 | 35.767 | -612 | -1,71 |
| **SEKTOREA:** | | | | |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA | 2.474 | 2.551 | -77 | -3,02 |
| INDUSTRIA | 13.357 | 13.780 | -423 | -3,07 |
| ERAIKUNTZA | 7.809 | 8.023 | -214 | -2,67 |
| ZERBITZUAK | 80.484 | 82.160 | -1.676 | -2,04 |
| AURREKO ENPLEGURIK GABE | 15.078 | 15.845 | -767 | -4,84 |
| **LURRALDE HISTORIKOA:** | | | | |
| ARABA | 19.937 | 20.283 | -346 | -1,71 |
| BIZKAIA | 68.003 | 69.793 | -1.790 | -2,56 |
| GIPUZKOA | 31.262 | 32.283 | -1.021 | -3,16 |
| EAE | 119.202 | 122.359 | -3.157 | -2,58 |

## ESKUALDEKO BILAKAERA

| | Langabetuak | Erregistratutako langabezia indizea | Aurreko hilabetea | | Aurreko urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Saldoa | Bil % | Saldoa | Bil % |
| Bidasoa Behera | 3.990 | 10,8% | -173 | -4,16 | -1.017 | -20,31 |
| Oarsoaldea | 3.700 | 10,2% | -138 | -3,60 | -703 | -15,97 |
| Donostia-S.Seb. | 7.745 | 8,7% | -285 | -3,55 | -1.758 | -18,50 |
| Donost.Mendebaldea | 3.151 | 8,6% | -89 | -2,75 | -639 | -16,86 |
| Tolosaldea | 2.026 | 8,6% | -30 | -1,46 | -605 | -23,00 |
| Urola Erdia | 1.242 | 8,0% | -12 | -0,96 | -332 | -21,09 |
| Goiherri | 1.586 | 7,4% | -123 | -7,20 | -512 | -24,40 |
| Deba Garaia | 2.393 | 7,9% | -29 | -1,20 | -870 | -26,66 |
| Deba Behera | 2.761 | 10,4% | -29 | -1,04 | -670 | -19,53 |
| Urola Garaia | 1.108 | 9,2% | -51 | -4,40 | -319 | -22,35 |
| Urola Kosta | 1.560 | 7,0% | -62 | -3,82 | -376 | -19,42 |
| **GIPUZKOA** | 31.262 | 8,9% | -1.021 | -3,16 | -7.801 | -19,97 |
| Vitoria-Gasteiz | 15.448 | 12,1% | -299 | -1,90 | -2.941 | -15,99 |
| Aialako Ibarra | 2.362 | 12,4% | -33 | -1,38 | -309 | -11,57 |
| Arabar Errioxa | 680 | 12,4% | 5 | 0,74 | -134 | -16,46 |
| Arabako lautada | 712 | 9,4% | -10 | -1,39 | -306 | -30,06 |
| Gorbeia inguruak | 309 | 6,6% | -12 | -3,74 | -34 | -9,91 |
| Arabako Ibarrak | 400 | 7,8% | -3 | -0,74 | -60 | -13,04 |
| Arabako Mendialdea | 105 | 6,7% | -2 | -1,87 | -26 | -19,85 |
| **ARABA** | 19.937 | 11,8% | -346 | -1,71 | -4.227 | -17,49 |
| Gobela | 4.929 | 9,6% | -91 | -1,81 | -929 | -15,86 |
| Txorierri | 2.345 | 10,3% | -38 | -1,59 | -447 | -16,01 |
| Uribealdea | 3.102 | 9,4% | -78 | -2,45 | -523 | -14,43 |
| Durangaldea | 3.436 | 9,2% | -154 | -4,29 | -1.120 | -24,58 |
| Busturialdea | 2.174 | 10,1% | -114 | -4,98 | -549 | -20,16 |
| Lea-Artibai | 991 | 8,3% | -61 | -5,80 | -296 | -23,00 |
| Enkarterriak | 2.077 | 13,5% | -66 | -3,08 | -349 | -14,39 |
| Arratia-Zornotza | 1.524 | 8,7% | -69 | -4,33 | -428 | -21,93 |
| Arratia-Nerbioi | 1.369 | 10,5% | -41 | -2,91 | -220 | -13,85 |
| Bilbo | 23.472 | 14,1% | -417 | -1,75 | -3.802 | -13,94 |
| Ezkerraldea | 17.740 | 14,3% | -532 | -2,91 | -2.685 | -13,15 |
| Ibaizabal | 4.748 | 11,8% | -119 | -2,45 | -756 | -13,74 |
| **BIZKAIA** | 68.003 | 12,2% | -1.790 | -2,56 | -12.130 | -15,14 |
| **EAE** | 119.202 | 11,1% | -3.157 | -2,58 | -24.158 | -16,85 |

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.